

LAGUNAK BETIRAKO

Behin bazegoen neskato bat Lorea deitzen zena, bera neska altua, argala, begi marroiduna, ile kizkurduna eta sudur txikia zuen. Ausarta, alaia, jatorra eta lagunkoia ere bazen. Berak lagun on bat zuen: Monstar bera, argala, begi berdeduna, ile kizkurduna eta sudur txikia zuen. Ausarta, pixka bat tristea, isila eta eskuzabala ere bazen. Beraiek batera toki askotara joaten ziren bidaiatzera, asko gustatzen zitzaien.

Berak, bere familiarekin plan asko egiten zituen, adibidez: bidaiatu, paseatu, hondartzara joan, igerilekura joan eta gauza gehiago, baina egun horretan plan oso berezi bat egin zuten.

Egun haretan, Lorea bere familiarekin mendira joan zen, noski eta bere lagun onenarekin, Monstarrekin. Oso ondo pasatu zuten, barre asko egin zituzten, baina momentu batetik aurrera behelainoa hasi zen, horregatik, ezin izan ziren menditik behera jaitsi. Momentuan, aitak pentstu zuen, hango baserri batean sartzea ideia ona izango zela, eta, ez zuten beste aukerarik orduan sartu egin ziren.

Hurrengo egunean, han esnatu ziren, eta, ihes egiten saiatzen zeudenean, aitona zahar bat agertu zitzaien, orduan Monstarrek esan zuen:

- Ahhhhhhhhhh! Harrapatu egin nau!
- Monstar!-esan zuen Loreak

Aitonak Monstar harrapatu zuen, eta Lorea eta bere gurasoak oso harrituta zeuden. Ordu batzuk geroago, Lorearen gurasoak Loreari triste ikusi zuten eta galdetu zioten zer gertatu zitzaion, eta berak hau erantzun zien:

- Aita, ama oso triste nago, ez dakit nola dagoen Monstar, eta azkenengo besarkada eman nahi diot.
- Lasai egon maittea, Monstar ondo egongo da, ez pentsatu gehiago, ertzaintzari deituko diogu.-esan zuen aitak.

Aitak esan zuen moduan ertzainei deitu zieten eta ikerketa bat hasi zen. Topatu, topatu eta topatu zebiltzaten momentu batean, leiho batetik, Monstar aulki batean lotuta, aitona zahar batek jotzen ikusi zuten arte. Sokekin eta bridekin zegoen lotuta zegoen lotuta, ematen zuen min asko ematen zuela. Momentu haretan Lorea oso pozik zegoen, Monstar hortik atarako zutela jakin zuenean. Orduetik aurrera ertzainak, Lorea eta bere gurasoak ixil-ixilik sartu ziren baserrira...

Bat-batean aitona zaharra agertu zitzaien :

- Ahhhhhhhhhhhh!-esan zuen Loreak

Baina oso berandu zen, ertzainak atxilotu egin zuten aitona. Orduan,

guraize batzukin, sokak eta bridak moztu eta aulkitik jaiki orduko Loreak, Monstarri besarkada bat eman zion, eta esan zion:

- Asko bota zaitut faltan Monstar!
- Nik ere bai!Asko sufritu dut hor lotuta, eta gogoan nuen zu besarkatzeko-esan zuen Monstarrek

Ondoren etxera joan ziren denak oso oso pozik, Lorea eta Monstar eskutik hobatuta konketuago esateko, eta hurrengo egunean, ikastolan zeunden bitartean hamarretakoa tokatzen zitzairen orduan beraien lagunei den-dena kontatu zieten, hasieratik, bukaerara. Beraien lagunak flipatuta gelditu ziren esandakoarekin.Harriturik gelditu ziren eta beldurra sartu zieten, baina,esan zieten gogorra izango zela hortik pasatzea eta hau erantzun zieten bi neskek:

- Bai, oso gogorra izan zen!- esan zuen Loreak-
- Nik kriston mina hartu nuen sokekin eta bridekin, eta gainera aitona zahar hori jotzen hasi zitzaidan!-esan zuen Monstarrek-

Hortik aurrera, Monstar eta Lorea ez ziren mendiko zona hortik gehiago pasatu, beldurra ematen zuelako eta hala bazan hala ez bazan sar dadila kalabazan eta atera dadila Lorearen eta Monstarren laguntasunean.

Patinak